# DERMO

Hizotzgailu eramangarria

## Funtsezko jarduerak

DERMOren funtsezko jarduerak produktuaren garapena, balidazioa eta merkaturatzea bermatzera bideratuta daude, beti ere segurtasun sanitarioa eta erabiltzailearen beharrak hartuta.

Lehenik, jarduera nagusietako bat **hozkailu eramangarriaren diseinua eta garapen teknikoa** da. Horren barruan, **material egokien aukeraketa**, **hozte-sistemaren eta bateriaren integrazioa**, eta prototipo funtzionalen garapena sartzen dira, sendagaien kontserbaziorako beharrezko baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.



Bigarrenik, **proba tekniko** eta **erabilera probak** egiten dira, bai laborategi ingurunean bai baldintza errealetan, **produktuaren errendimendua, segurtasuna eta fidagarritasuna balioztatzeko**. Proba horien bidez etengabeko hobekuntza bermatzen da.

Bestalde, **osasun-sektoreko eragileekin lankidetza eta harreman instituzionalen** kudeaketa funtsezko jarduera da, hala nola Osakidetza, profesional sanitarioak, farmazia-sektorea eta banatzaileak, produktuaren balidazio klinikoa eta merkaturatzea errazteko.



Azkenik, ekoizpenaren, mantentzearen eta banaketaren plangintza eta **koordinazioa jarduera** giltzarriak dira, produktua modu eraginkor, irisgarri eta jasangarrian erabiltzaileengana iritsi dadin.

